


AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

Inbertsioak eztabaidatuko dira astelehenetik aurrera

■ Proposatutako proiektuak eztabaidatuko dira, sektoreka ■ Azkenean, aurten zein proiektu lagunduko diren erabakiko da ■ Gehienera, 300 milioi daude inbertitzeko.



Apaolaza eta Apezetxea zinegotziak udal aurrekontuetako bilera batean.

58 proiektu desberdin proposatu dituzte herritarren eta udaleko teknikarien artean, aurreko bileretan (asko, zenbat kostako lirartekeen zehaztu gabe badaude ere). Orain diruz zein lagundu erabakiko dute; 300 milioi osatu arte, gehienera jota. Datorren astean sektoreka (dendariak, nekazariak, udal langileak...) eztabaidatuko dute, eta bukarako batzar orokorrean hartuko dira erabakiak.

PROIEKTUAK NOLA AUKERATU
1- Iaztik konprometituak daudenak kontuan hartuta. Berriak ere sartu nahi dira.
2- Konponketetarako (bideak...) dirua zehaztuta.
3- Proiektuak ahalik eta zeha tzenak izatea.
4- Proiektuak sektore ezberdinetakoak izatea (kulturakoak, kirolekoak, nekazaritzakoak...) Proiektuek ez dute irizpide guztiak zertan beterik.

BILERAK SEKTOREKA

Azaroak 20	Hezkuntza 20:00etan Kultura 20:00etan
Azaroak 21	Emakumeak 20:00etan. Auzokideak 20:00etan
Azaroak 22	Kirola 20:00etan Euskara 20:00etan.
Azaroak 23	Adinekoak 19:00etan. Gazteak 20:00etan. Merkatariak 21:00etan.
Azaroak 24	Udal langileak 18:00etan nekazariak 21:00etan.

EZABAKETA EGUNA ATZO

Ertzantzak identifikatu arazi egin zituen Euskal Herrian Euskarazeko 5 kide

■ Erdaraz zeuden kartelak borratzen ari ziren ■ EHEko kideek Ertzantzaren jarrera salatu dute ■ Hurrengo larunbatean 11:00etan gelditu dira protestekin jarraitzeko.

EZABAKETA eguna egin zuten atzo EHEko kideek: epaitegia, Osasun Zentroa eta Institutoa *prezintatu* eta erdarazko seinaleak borratu zituzten. EHEko kideen hitzetan, *sekretak* jarraitu egin zieten eta EPOra jeitxi zirenean Ertzantzaren bi patruila agertu

ziren. Ertzainek "Aquí vamos a hablar en castellano porque me sale de los cojones" esan, identifikatu arazi eta espraiak kendu omen zizkieten. EHEko kideek hala eskatu arren Ertzainak ez omen ziren identifikatu. EHEko kideek Ertzantzaren jarrera "bordea" salatu, eta

horrelakoak egiten dituzten lehen aldia ez dela esan dute. □

Auto azterketa debalde egingo du Mapfre etxeak

■ Bihar, astelehena, *Brintzako* ofizinarene ondoan, Urbieta kalean ■ Etzi, asteartea, *Hatorreko* ofizinarene atzekaldean, Atzieta kalean. .

MAPFRE aseguru etxeak autoa debaldeko aztertzeko aukera jarri du Hernaniko Brintza eta Hator inguruan. Direkzioa, frenu eta antikonjelante likidoak, argiak, gur-

pilak, konbustioa, eta kutsadura maila begiratuko dituzte. Horrez gain lapurreten aurkako kristalak grabatuko dira. Orduetia: 10:00-13:00 eta 16:00-19:00. □

Orientazio ikastaroa hasiko du bihar Mendiriz Mendik

■ Federatuta dauden elkarteko bazkideentzat da ■ Ikastaroa 5 egunetako da.

20 lagun inguru izango dira Mendiriz Mendiko Orientazio ikastaroan. Astelehenetik os-

tiralera klase teorikoak izango dira, larunbatean, berriz, ariketa praktikoak egingo dituzte. □

3. MAILAKO FUTBOL LIGA


Hernani - Durango Zubipen gaur 16:30etan

■ Hernaniarrak zortzigarren daude sailkapenean, 15 punturekin. ■ Durangarrak bi postu beherago daude.

WATERPOLOA

Hernani - Eibar

■ Teorian, erraz irabazi beharreko partidua dute gaurkoa ■ Eguerdiko ordubatean, kiroldegian.



Ibon Mendoza, waterpoloko entrenatzaile eta jokalaria

UGALDE, S.A.
SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598
Faxa 943.552.067
20120 HERNANI

URMAR BIKOLAJEA

Oztaran auzoa, 13
Tel 943 552616-Faxa 943 552412
20130 URNIETA (Gipuzkoa)

BEGIRA OPTIKA

URBIETA, 8 TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

J. M. GONZALEZ 'ZIKUÑAGAKO AMA'KO LEHENDAKARIA

“Gero eta jende gehiago biltzen gara eta gero eta maila altuagoa dago”

■ 27 sari banatu dira aurtengo sari banaketa afarian ■ Estatu mailako proba garrantzitsu askotan ibili dira Hernaniko zikloturistak.



X. Albistur (ezkerretan) eta J. M. Gonzalez Murciako itzulian.

ZIKUÑAGAKO Amako txirrindulariak denboraldia bukatu eta denkantsatzeko moduan dira. Denera, 62 bazkide ditu eta 20 urtetik gora daramazki Hernanin zikloturismoa bultzatzen.

OTSAILETIK URRIRA: 5.000 KILOMETRO
Zortzi hilabeteko denboraldia

egiten dute, abuztuan etenaldia eginda. Karrerak, berriz, era askotakoak. Igande goizeko inguruko herriren batera joaten dira eta 15 etapatik gora korritu dituenak medaila jasotzen du sari banaketa afarian: aurtun 27 izan dira hala egin dituztenak.

Karrera eta entrenamendu, urtean 5.000 kilometro egiten

dituzte bizikletan, eta hori batzuek beste. Bakarren batzuk auskalo zenbat...

QUEBRANTA HUESOS...

Hernaniarrek proba garrantzitsuetan ere parte hartu dute aurtun, irabazi ez badute ere: *Quebranta huesos*, (Aurrengo hernaniarra Lajusticia 2- Mendia eta 3- Zilbeti); *Indurain Proba* (1-Elvira, 2-Navarro, 3-Otxandorena); *Murciako Itzulian* (Albistur eta Gonzalez); *Ardo Bidea* (Esposito eta Murua); batzuk egun bakarrekoak dira eta besteak 5-6 egunekoak.

“BAKOITZA BEREAN”

Bizikletan ibiltzea gustatzen zaionak ez du *Zikuñagako Amara* arrimatzeko zertan beldurrik izanik. Jose Mari Gonzalezek esan digunez, bizikletan ondo ibiltzeko sekretu bakarra dago: “Ibili, ibili eta ibili”. Eta hori bai: “bakoitza bere erritmoan. Gurean aukeratu liteke: bizi-bizi, lasaiago, patxadan... □

ERRUGIBIA

Hernanik 16 - 9 galdu du Ordizian

■ Ondo jokatu bai, baina, ez zute entsaioerik egin ■ Lehenengo buelta bukatu dute: partidu bakarra irabazi eta azkenaurreko postuan.

HASITA bezala bukatu dute hernaniarrek lehenengo itzulia: justu, baino galtzen. Partidua irabazten hasi ziren Ordizian, baina, ez zuten entsaioerik egin.



Hernaniko B taldekoek bizkaitarrei koloreak aldarazazi zizkieten!

HOBETO JOKATU


Aurrean goierritarren aldean fin ibili omen ziren eta melean ere bai. Bederatzi puntuak, ordea, *zigor kolpez* lortu zituzten. Bukaeran, hiru aukera garbi izan zituzten, baina, sartu ez. Datorren partidua iruñarren kontra jokatu dute abenduan.

KADETEEK 52-0

Hernaniko kadeteek jipoi ederra eman diote Arrasatekoiei. Landareko berriemaielen ustetan, Gipuzkoan ez dute parekorik. □



ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506



Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18

LARUNBATETAN ITXITA

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



HERNANI (Gipuzkoa)

HITZ BITAN



Bazkideak Txantxangorri, tripa zorriak baretzen.

BAZKIDE AFARIA TXANTXANGORRIN

68 lagun izan ziren urteroko afarian, ostiralean; tartean elkarreko bazkideak eta beste elkarteetako gonbidatuak. Hauek gobernatzen 5 sukaldari aritu ziren; ez zuten lan makala izango!

PELOTA: ESNALEK GALDU

Iñaki Esnalek 22-10 galdu zuen atzo Zabalaren kontra. Ligaskako azken partidua jokatu behar du orain Galartza IVren kontra, baina, ia ezinezko jarri zaio finalerako txartela.

ESKUBALOA: HERNANIK IRABAZI

25-18 hartu zuten menpean Galdakaoko taldea. Hernaniarrek oso ondo defenditu zuten eta kontraerasora azkar aterata lortu zituzten gol asko. Golak: Ruthek 9, Ainhoak 6, Oihanek 4, Lorenak 2, Zuriñek 2 eta Monika eta Eluskak bana. □

AGENDA

◆ **ERAKUSKETA**
Alberto Elosegiren argazkiak.
Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argazki erakusketa
Zumardi tabernan.

◆ **ZINEA**
Mi perro Skip.
Biterin, 17:00-19:30

Vietnameko amona zaharra, Zumardiko argazki batean.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Correa
Antziola, 44
☎ 943 336022
▶ Gaeuz: Bulnes
Etxeberri
☎ 943 557738

SANTA BARBARA
PEUGEOT

PEUGEOT Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

AUTO ETA FURGONETA ZAHARRAK HARTU ETA 2. ESKUKOEZ ALDATZEN DITUGU

- ▶ Peugeot 405 *Diesela nahiz Gasolina*
- ▶ Peugeot 205 *Diesela*
- ▶ Citroen C-15 *Diesel* batzuk 380.000 pztatik
- ▶ Ford Courier *Diesela-Lagundutako direkzioa*
- ▶ Opel Astra 'Caravan' *Diesela* 675.000 pzta
- ▶ Opel Astra *Diesela* 875.000 pzta
- ▶ Suzuki 'Todo Terreno' 375.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...